

PRENTSA OHARRA / 2022-02-11

Arabako saltokiek zientzia- eta teknologia-arloan erreferenteak diren emakumeek egindako lana ikusarazten dute

- **Arabako Foru Aldundiak, Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak eta Deustuko Unibertsitateak antolatzen dute Arabako STEM emakumeak ezagutarazteko ekintza hori**
- **Ekimen horrek bat egiten du Emakume eta Neska zientzialarien Nazioarteko Egunarekin**

2022ko otsailaren 10ean. Emakume eta Neska zientzialarien Nazioarteko Eguna dela eta, **Arabako Foru Aldundiak, Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak eta Deustuko Unibertsitateak** aldi baterako kartel erakusketa antolatu dute Arabako erakusleihatuan, Arabako emakume zientzialari eta teknologoen hainbat profil eta esperientzia erakusteko.

Kanpaina hau hiru erakundeek, Inspira STEAM programaren bitartez, ikasleen artean, eta bereziki nesken artean, bokazio zientifiko-teknologikoak sustatzeko duten konpromisoaren parte da. Erakusketaren helburua jarduera profesionala zientzia- eta teknologia-eremuan gauzatzen duten Arabako emakumeek egiten duten lana ikusaraztea da, eta neska ikasleen artean STEM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika, ingelesezko siglak) lanbideekiko interes handiagoa lortzea du helburu. Ekimena gizarte osoari dago zuzenduta oro har, baina publiko espezifikagoei zuzendutako eta ikastetxeetan eta lan-zentroetan egiten diren mentoriak, hitzaldiak eta tailerrak osatzen ditu.

Kanpainari dagokionez, otsailaren 18ra arte Arabako hainbat saltokik, zientzia eta teknologia arloetako emakumezko erreferenteen lekukotzak dituzten kartelak jarriko dituzte erakusleihatuan. Horretarako, Arabako STEM emakume profesionalen biografia txikia, argazkia eta sektorean duen esperientziarekin erlazionatutako aipamena jasotzen duten hainbat poster banatu dira. Ekimena 2020-2021 edizioan sartu zen berrikuntza gisa, eta bigarren urtez jarraian egiten ari da.

Duela 5 urtetik hona, Arabako Foru Aldundia Inspira STEAM programa babesten ari da, lanbide zientifiko-teknologikoak gazteei eta, bereziki, neska gazteei hurbiltzeko konpromisoan. Neska ikasleak ahalduntzea helburu duten ekintzak dira, lurralde osoan bokazio horiek pizteko.

2016an, Deustuko Unibertsitateak Inspira STEAM programa jarri zuen martxan. Ekimen hori, nesken bokazio zientifiko-teknologikoak sustatzeko ekintza ugarien artean dago, arlo horietan aritzen diren emakume profesionalak ikusaraziz. Gizartean ere eragin nahi du, zientzian eta teknologian dagoen

genero-arrakalaz kontzientziazteko eta sentsibilizatzeko.

Arabako Parke Teknologikoak modu aktiboan laguntzen du jarduerak gauzatzeko, euren jardueran Parkean egiten duten emakume erreferenteak sustatzen lagunduz. Gaur egun, 7.500 emakumek osatzen dute Euskadiko Parke Teknologikoen Sarea. Sare hori osatzen duten pertsona guztien ia %40a dira.

Mentoria motibatzaileak

Inspirira STEAM lehen hezkuntzako ikasleekin talde-mentoring-aren teknika erabili zuen lehen programa izan zen, umeengan STEAM lanbideekiko interesa sustatzeko helburuarekin. Horrela, mota horretako beste proiektu batzuetarako erreferente bihurtu zen.

Azken edizioan, 2020-2021ean, programak 126 emakume aholkulari izan zituen, eta horietatik 55, guztien %44, Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko enpresetatik zetozen.

Mentoring-aren kolaboratzaileei dagokienez, borondatez egiten dute, eta zientziarekin edo teknologiarekin modu estuan erlazionatutako erakunde edo jardueretan esperientzia profesionala duten pertsonak dira.

Parke Teknologikoen Sareak STEAM sektoreetako 580 enpresetan lan egiten duten emakumeen kopuru handia biltzen du. Enpresa horiek, besteak beste, aeronautikan, automozioan, energian, zerbitzu aurreratuetan, elikaduran, biozientzietan, fabrikazio aurreratuan edo IKTetan aritzen dira, eta STEAM erreferenteen iturri garrantzitsua dira programarako.

2021-2022 edizioari dagokionez, 140 emakume aholkularik Euskadiko 54 ikastetxetako 2.673 umerekin egingo dute lan datozen hilabeteetan, hainbat gai landuz, besteak beste, genero-estereotipoak zientzian eta teknologian, STEAMak zer diren edo emakumeak zientzian.

Biharko emakumeak

Gaur egun STEAM profil profesionalen eskaera handia denez, Inspira STEAM programak nesken artean bokazio zientifiko-teknologikoa sustatu nahi du, eta, aldi berean, herrialdearen garapenaren bidean gizonen eta emakumeen artean berdintasunez egin behar dela kontzientziatu.

Illo horretan, hainbat azterlanek agerian uzten dute emakumeek parte-hartze txikia dutela sektore zientifiko-teknologikoan, eta emakumeek ikasketak aukeratu behar dituztenean oraindik dagoen genero-aldea bereiz daitekeela: 15 urtetik beherako emakumeen %7k bakarrik planteatzen du etorkizunean lanbide teknikoa izango duela.

Hala ere, EUSTATEN datuen arabera, unibertsitateetan ikasten duten pertsonen %56 emakumeak dira,

baina unibertsitate-sisteman gehiengoa izan arren, desoreka nabarmena da titulazio teknikoetan; izan ere, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiekin (IKT) erlazionatutako karreretan, ikasleen %16 baino ez dira emakumeak, eta mekanikarekin, elektronikarekin, industriarekin eta eraikuntzarekin erlazionatutako graduetan, kopurua %30etik beherakoa da.

Sektoreko emakumezko erreferenteen kopurua handitu behar denez eta STEM azterlanetan emakumeen partaidetza urria denez, bide zientifiko-teknologikoa aukeratu zuten eta esperientzia partekatu dezaketen emakume profesionaleri ikusgaitasuna emateko lanean ari da programa.

<https://inspirasteam.net/eu/cientificas-alavesas/>

Informazio gehiago:

Euskadiko Parke Teknologikoen Sarea

Prentsa Departamentua

prentsa@parke.eus | T 94 403 95 00

www.parke.eus